

# Etxeko sagua eta basoko sagua

Herriko etxe eder batean bizi zen sagua kanpora irteten zen behin, zelai eta basoetan zer gertatzen zen jakin nahi zuelako. Beste sagu bat aurkitu zuen, herria ezagutzen ez zuena eta basoan hazitakoa. Basoko saguak honela esan zion kanpokoari:

–Nire lagun berria, zatoz nirekin nire etxera.

Eskerrak emanez, herriko saguak basokoari jarraitu egin zion. Eskaini zion honek bazkaria. Agertu zireen mahaira ezkurak, intxaurrak, hurrak, mizpirak, txermenak, aranak, sagarrak eta zer ez?

–Adiskidea –esan zion herriko saguak– janaria ugari duzu, baina guztia hotza eta sabela berotzen ez duena. Zatoz orain nirekin herri barruko etxe aberats batera eta emango dizkizut janari gozoagoak, koipe eta eztia, urdai eta gazta, txorizoa eta zezina, gozoak eta... zer ez? Handiki bat naiz zure aldean.

Joan zen basoko sagua herrikoarekin. Sartu ziren etxe handi batean. Etxekoak despentsa edo jantokira eramane zuen basoko laguna. Bizarrak koipetu eta musuak ezituz jaten ari zirela, horra non unerik onenean katu lodi eta arre bat sartu zitzaion. Etxeko saguak ihes egin eta zulo batean gorde zuen burua. Basokoa ikaraturik zegoen, zer egin ez zekiela; ihes egin zuen, jarraitu zion katuak, ukitu zuen pixka bat atzaparrekin, baina zorionez ez zuen harrapatu. Katua atera zenean, etxeko sagua basokoaren bila joan zen eta lepotik odola zeriola aurkitu zuen, eta beldurrez, erdi isilik esan zion:

–Nola ez duzu ihes egin, nik bezala, katuaren itzala ikusi orduko? Kontuz ibili hurrengorako.

Abiatu ziren berriz jatera, eta hara non entzuten den atean giltzen hotsa: ihes egin zuen laster etxekoak; basokoa koipea zuen eltze batean zegoen. Ateratzen ausartzen ez zenez, han egon zen, gordeta. Giltza zeukan neskamea batera eta bestera ibili zen gauzen bila eta zorionez, ez zen heldu basoko sagua zegoen ontzira, eta azkenean, alde egin zuen. Bueltatu zen etxeko sagua jantokira eta honela esan zion basokoari:

–Ez al dizut esan lehenago irteteko eta ihes egiteko berehala? Ni soldadu zaharra naiz, honelako arriskueta urteak igaro dituen.

–Adiskidea, –erantzun zion basokoak– zuretzat janari gozoak. Ai nire mendi lastana! Askoz hobe zara! Ez duzu han katurik, ez giltza duen andrerik. Nire basoan ezere beldurrik gabe jaten dut. Zaude, zaude zu hemen bizarrak koipetzen, beti auzitan, bai katuarekin bai etxekoekin. Agur; banoa ni nire basora.

BIZENTA MOGEL  
*Habe aldizkaria (moldatua)*



1 Aukeratu. Nola esaten zaio animaliak protagonista dituen ipuin motari?

☐ ipuintxoa

☐ atsotitza

☐ alegia

☐ erromantzea

## 2 Erantzun.

Zer gertatu zen katua jantokian sartu zenean? \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

Zer gertatu zen neskamea sartu zenean? \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

## 3 Zer esan nahi du «beti auzitan sartuta» esaldiak?

- ☐ Beti inoren abokatuarena egiten ibiltzea.
- ☐ Beti inoren txutxu-mutxuen mende ibiltzea.
- ☐ Beti arazo edo liskarretan sartuta egotea.

## 4 Letra-zopa bakoitzean sagu batek besteari eskaintzen dizkion zazpi janariak aurkituko dituzu.



|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Z | O | A | M | I | E | I | A | A | I |
| B | E | B | I | I | Z | R | A | A | M |
| I | B | Z | N | E | K | P | O | R | I |
| R | I | U | T | R | U | I | T | A | Z |
| R | Y | T | X | E | R | M | E | N | P |
| S | A | G | A | R | U | Z | I | N | I |
| Z | U | I | U | K | I | S | U | B | R |
| G | H | U | R | I | T | A | T | R | A |

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| U | R | D | A | I | L | G | A | A | I |
| T | E | B | A | A | G | A | A | I | K |
| I | X | Z | U | Z | E | Z | I | N | A |
| R | I | O | W | T | L | T | K | U | I |
| R | Y | T | R | A | E | A | O | T | E |
| I | Z | O | T | I | U | Z | I | A | Z |
| Z | U | I | D | E | Z | T | P | B | T |
| G | O | Z | O | I | T | O | E | R | I |



## 5 Aukeratu. Irakurri alegia labur hau eta eta asmatzen duzun zer esan zuten euliek.

«Jakitegi batean eztia erori zen. Hara joandako euliak pozik hasi ziren jaten. Hain zen gozoa eztia! Horregatik ez zuten handik alde egiten. Baina oharkabea hankak itsatsi eta hegán egin ezinda geratu ziren. Itotzeko zorian zeudela, esan zuten:»

- ☐ «Atsegina da eztitan hiltzea!».
- ☐ «Atsegin laburrak galdu egin gaitu!».
- ☐ «Nahiago erle, euli baino!».